

114. zk.
2002ko ekaina



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



*Kapela buruan
eta ibili
euskararen munduan!*

Ondategi. Ekainak 16

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ARABAKO EUSKAL HOTSAK ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA

ERAKUSKETA IBILTARIA

Uribarri-Jauregi:

Ekainak 1 - 6

Lantaron:

Uztailak 13 - 25

Ekora:

Uztailak 27 - Abuztuak 12

Leza:

Abuztuak 14 - 31

**GURE LURRALDEKO HISTORIA,
ARABAKO EUSKARAREN HISTORIA ZABAL DADIN!**

114 zk. 2002ko ekaina

4-6. ORR.:
ZIZKA-MIZKAK
ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAren FINALA

7. ORR.:
GEUgune

8-9. ORR.:
LITERATURA-MUSIKA

10-11. ORR.:
KONTURIK KONTU

12-14. ORR.:
BIDAIAK I. IPAR LURMUTURRA - TARIFA

15-17. ORR.:
JON BENITO IDAZLE GAZTEA

18.-19. ORR.:
ARABA EUSKARAZ-2002

20-22. ORR.:
ARKEOLOGI INDUSKETAK ARABAN

23-25. ORR.:
DETRITUS TEATRUS

26-27. ORR.:
LUMA HILABETEKARIA

28-29. ORR.:
EMAIZE. "AZALEZ AZAL GAITEZEN" KANPAINA

30-31. ORR.:
MARTIN FIZ

32-33. ORR.:
Zeuk aukeratu!

34. ORR.:
TINK (Iñigo Sarasolaren komikia)

36. ORR.:
ARABAKO EUSKAL HOTSAK. ANTECEDENTES
DEL EUSKERA EN ALAVA LIBURUAK
LASTER KALEAN!



GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es



Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. Aldizkariako batzordea: Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.
Kazetariak: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. Testuen orrazketa-zuzenketak: E.B. Maketa: Dalvez. Marrazkiak eta logoa: Iñigo Sarasola. Araba Bixotzian: Ernesto Murillo 'Simonides'. Kolaboratzaileak: Iñaki Zorrakin. Publizitatea eta Banaketa: Edurne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gastetz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



Euzko Jaiaritzako
Kulturako Saila



4. ORR.



12-14. ORR.



20-22. ORR.



23-25. ORR.

ARABAKO

BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINALA

ZORIONAK ASIER OTAMENDI, BAITA GAINONTZEKOAK ERE!

MANEXEN UMEA ETA OTAMENDIREN TXAPELA


Bagatoz beste hilabete batez, bagatoz, bagatozela gu eta txapela. Baina ez lehengo txapel bera, Arabako Bertsolari Txapelketaren lehenengo txapela izan baitzen maiatzaren 11n Principalen jokatu zena.

Giro ederra: 500 emagizaki inguru bildu genituen larunbatean gure egin genuen antzokian. Bertsozaleak saio orekatu bezain entzungarri batez gozatu ahal izan ziren (eta hala adierazi zieten bertsolariei; txalo zaparradak izan ziren horren lekuko).

Orokorrean inori inbidiarik ez edukitzeko moduko finala izan zen. Egia esan, finalera pasa ez zirenek inbidia piska bat izan zuten.

Finaleko bertsolariak liluragarriak eta honako hauek izan ziren: Oihane Perea, Ruben Sanchez, Asier Otamendi, Manex Agirre, Juan Mari Juaristi eta Ricardo Glz. De Durana. Egin zuten lana ere haien gaitasunen ainakoa; hiruna bertso ofizioka zortziko txiki, zortziko nagusi eta hamarrek txikian, bakarka puntu bati erantzun eta gaiari bi bertso. Ondoren bigarren fasea zetorren, bertara pasatzeko aukera bi bertsolarik bakarrik zeukatelarik. Bertan lanak; seiko motzean hiruna bertso ofizioka eta kartzelako gai bati hiruna bertso doinu eta neurri librean.

Zortziko handiko saiotik hasi zen finala gogor: Rubenek eta Oihane doinu berritzaile batean saio polita egin zuten eta baita beste bikoteek ere. Zortziko txikian saioa bizitu egin zen, logikoa den bezala, umore puntu batekin. Oihane eta Rikardoren saioa horren lekuko: Oihane ez du Rikardo bere amonaren bazkaria jan nahi, bikinia



janzteko garaia datorrela eta. Rikardok egungo mutilek neska lodiak gustuko dituztela esan eta Oihane horrela erantzun zion: Bai ba geriatrikoan izango da hala/ egungo neska fina, altu ta argala/ gose greban ipini behar naiz berehala/ ez baitut bukatu nahi amonak bezala.

Hamarrek txikiko saioak distira areagotu zion lehendik ere distiratsu zihoan finalari. Aipagarriena, besteak ere aipagarri baitira, Manex eta Otamendiren ofizioa izan zen. Otamendik Tangerrekoko portuaren papera bete zuen eta Manexek Tarifakoarena.

OTAMENDI: portu bezala biok daukagu distira/ jende askori eman

diogu kabida/ zurea ametsa da nirea kupida/ hemen jende ugari igotzen da tira/ esan zaidazu hara iristen al dira.

MANEX: berriro patera bat hurbiltzen ari da/ Europa zaharreko sabel ta kabira/ ai espabilatugo izango balira/ zukan guztiak daude nigana begira/ gero begirik gabe iritsi ohi dira.

Bakarkako ariketan Rikardo izan zen nagusi, puntua ederki erantzunez eta gaiari ere bi bertso eder botaz, Palestinaren inguruan arrazoi eder hau bota zuen: ...Dabid zenaren izarra dauzka sei punta zorrotz-zorrotzak/ gupida gabe zula ditzaten palestinarren bihotzak.

2. FASEA

2. faserako txartela Manexek eta Otamendik eskuratu zuten. Hemen aipagarriena Manexen kartzelakoa izan zen. "Aspalditik amets bat eduki duzu eta gaur bete egin zaizu". Erabat harrিতuta eta hunkituta utzi gintuen Manexen ateraldiak (batez ere bera ikustera hurreratu ziren neskatzak), horrela amaitu baitzuen bertsoa: ...ametsa zein den hemen esanez zuen txalo hotsaren truk/ barkatu baina hain pozik nago alaba bat eduki dut. Ametsa kontatu eta gero inork ez zekien hurrengo bi bertsoetan ze arraio esan zezakeen, baina entzulegoak aho bete hortz jarraitu zuen: ... ziztu bizian korrika baten banoa ospitalera/ nire ametsa zer moduz dagon lasai-lasai ikustera. Eta horrela bukatu zuen bere lana: ...nire andreaki hau esateko hartu beharra dut presa/ ia hain azkar betetzen dudana nire bigarren ametsa.

Agurak itxaropenez beteak izan ziren batzuk, eta eskerrak emanez beste asko:

Oihane Perea: Dirudienaz aurten bihotzak Manexek ohostu dizkigu/ ta gauzak ere pentsatu baino hobe atera zaizkigu/ Printzipaleko gazte andana izan da horren testigu/ Otamendik bai baina gaurkoan Arabak irabazi du.

Ruben Sanchez: Nere barne isurkin likitsen legami/ hau eskeini nahi diot Ariel Sharoni/ Aznar, tripartitoa, PSOE, Garzoni./ Jospin ta erdi bana Chirac ta LePeni/ baita ere Londoni/ nola ez Washingtoni/ Errusian Putini/ ta eskerrak eskeini:/ preso ta hona etorri den jende guzti honi.



1. ASIER OTAMENDI: 507 puntu
2. MANEX AGIRRE: 475 puntu
3. OIHANE PEREA: 317,5 puntu
4. RICARDO G. DE DURANA: 314 puntu
5. RUBEN SANCHEZ: 306 puntu
6. JUAN MARI JUARISTI: 304,5 puntu

Zorionak Otamendi! Zeneraman kamixetak zioen bezala: "Txapela buruan ta ibili munduan!" Zorionak Manex! Eta zorionak Oihane, Rikardo, Ruben, Juan Mari, Olatz, Iñaki, Irati, Andere, Zigor, Betto, Ane, Ekaitz, Lierni, Karla, eta, horren garrantzitsua den gaijartzaile, epaile eta, orokorrean, antolakuntza lanetan aritutako guztiei! Eta batez ere, Zorionak Araba!

Arabako Eskolarteko Bertso Txapelketa. 2002 • Finala: Ekainaren 8an, Armentia Ikastolan

araba bixotzian



ikusi-makusi

GASTEIZKO IV. ZINE JAIALDIAREN (maiatzak 8-11) inguruko 'ERDI AROKO HIRIGUNEKO' (ALDE ZAHARREKO) MERKATARIEN (DENDAK ETA ZERBITZUAK) FEDERAKUNTZAREN ekimena:

"ZINEZKO ESKUAK" edo "IZARREN PASEOA"

• Osagaiak:

Buztina eta zenbait aktore zein zinearen munduko kide entzutetsuren eskuetako bat.

• Honakoen eskuaren arrastoa geratu da Gasteizen:

- Vicente Aranda (Zine zuzendaria)
- Sancho Gracia (Aktorea)
- Fernando Guillen (Aktorea)
- Charo Molina (Aktorea)
- Miguel Angel Muñoz (Aktore eta dantzaria)
- Mario Pardo (Aktorea)
- Lluís Pasqual (Antzerki zuzendaria)
- Rosana Pastor (Aktorea)
- Cristina Piaget (Modelo eta aktorea)
- Pablo Pujol (Aktore eta dantzaria)
- Txema Sandoval (Aktorea)
- Teresa Font (Zine muntatzailea)

• Plaken egile:

Federakuntzaren partaide den Hedegile kalean dagoen BUZTINTZA zeramika tailerra.

(Eskerrik asko Buztintza tailerrari emandako informazioagatik)

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin



IZA-02/5

Kopetazuria (*Fulica atra*)

Atzean gelditu dira arren arteko borrokak. Txitoak aurrera ateratzeko garaia da.

Zerbait saldu, erosi, alokairuan jarri edota alokatu nahi duzula...? Eskola partikularren berri eman nahi duzula? Umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko lagun baten bila zabiltzala...? **HEMEN DUZUE EUSKARAZ EGITEKO AUKERA!!!** (Telefonoz edo posta elektronikoaren bidez)

GEU AZOKA

* Geu Azoka-ko iragarkiak alez ale berritu behar dira, hots, ale batean zerbait iragarri eta hurrengo alean ere argitaratzea nahiko bazenute, deitu edo posta elektronikoz jakinarazi.

SALMENTAK-ALOKAIRUAK

Garaje plaza bat salgai. San Cristobal auzoan. 945137195
606658122

UMEAK-ETXEKOLANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANA

KANGEUROAK

Umeak zaintzeko prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsalde, gauez, asteburuak...). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

EGUN OSOZ • GOIZEZ • ARRATSALDEZ • GAUEZ • ASTEBURUAK

ILAZKI. Ordutegi guztiak. Tfnoa.: 945172037



KULTUR ERROTA-02
(GEU elkartearen eskutik)

EKAINAREN 25ean, asteartea,
20.30etan

PARRALEN

AMARAUN
JAZZ TALDEA

• **Mintzalaguna egitasmoari, adi!:** Euskaraz hitz egin, jende berria ezagutu, ondo pasatu nahi duzula? Deitu Elkartera (Josunez galdetu) eta aukera izango duzu! Astindu lotsa eta deitu 945222153 telefono zenbakira (zenbat eta lagun gehiago, orduan eta talde desberdinak egiteko aukera gehiago).

GEUREKIN MENDIRA -02

EKAINEKO IRTEERA

BAGARE eta EUSKARAZ BIZI
taldeekin batera:

MENDAUR (Nafarroa)

EKAINAREN 8-9ko
asteburuan

IRTEERA: goizeko 9.00etan, MARIA-NISTAS ikastetxearen aurrean (Luis Heinz kalea).

EGUN OSOKOA

Informazio gehiago: Txus (Bagare),
94525 10 84

URTEMONDO

Ekainaren 16an

(Araba Euskaraz-era joateko aukera barne)

Informazio gehiago: Maite,
945282316 / Bego, 945266812

GEU elkartearen posta elektronikoa:
geuelkarte@grn.es
Gogoratu aldizkariarena:
geugaste@grn.es



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



ELKARLANEAN ARGITALETXEAREN
ESKUTIK...

ELKARLANEAN

ETA ZER? saila ARREBA TXIKI BAT DUT, ETA ZER?

Argitaletxe Elkartuak taldearen beste emaitza bat; sei argitaletxeren artean (valentziarrak, euskaldunak, galiziarak, katalanak, asturiarrak eta aragoiarrak) sortutako elkarlanerako plataforma.

Bilduma honetako liburu bakoitzean egoera edo arazo baten azalpena egiten da. Gure eguneroko bizitzan gertatzen zaizkigun gauzetan oinarriturik daude ipuinak. Planteatutako arazoari irtenbide egokia ematen saiatzen da egilea, era baikor eta umoretsuan. Haurrentzat bilduma egokia. Guraso eta irakasleentzat ere bai.



(Eta zer? saila 9)
J.M. Olaizola "Txiliku"
Jokin Mitxelena
32 orrialde 5,25 euro

Iñakik arreba txiki bat edukiko du laster. Alde batetik, oso pozik dago, baina, bestetik, baditu bere kezak ere, bere lagun Manueltxok berotu baitio burua arreba txikiei buruz gaizki hitz eginez.

TXALAPARTAREN ESKUTIK JOHANES, BARGOTAKO AZTIA (AXURI BELTZA)

(Fultxo Crespo, Mikel Fernandez eta
Josu Jimenez
Marrazkiak: Beatriz Dueñas Chasco)



Harry Potter sortu baino askoz lehenago azti asko ligo ziren magia eskoletatik, eta edabe eta ukendu magikoak prestatzeko errezeta guztiak ikasi zituzten. Gurean, Johanes, Bargetako Aztia, izan zen ezagunenetakoa. Patrikan, orratzontzia eramaten zuen beti, behar izanez gero hura ireki eta barruan gordetako galtzagorriak lanean jartzeko, maltzurren eskarmentura-ko betiere...

Nafarroako bazterretan gaur egun arte gorde da Johanesen izena, eta zaharrenek oraindik ere haren abenturak eta sorginkeriak kontatzen dituzte. Liburu honetan aurkituko dituzu ezagunenak.

10 urtetik aurrera

azkarprint
Imprenta / Imprimategia

Helbide berria....

Landazuri, 7

◆ INPRIMATEGIA ◆ Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

modan dago eguzkia...

Eguraldi onarekin, argia eta sentsualitatea nagusitzen dira, markak eramaten dira.

modan daude...

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

www.multiopticas.com
ORDAINDU EZAZU 3 HILABETETAN,
ERREKARGURUK GABE

VOGUE Salvatore Ferragamo Max Mara Chloé Ray-Ban KILLER LOOP D&G MOSCHINO

EKAINEKO ELKARLANE- AN LEHIAKETA

GALDERA:
Zer esan nahi du
"A ZER PATATA DAUKAZUN
GALTZERDIAN?"
esamoldeak?

BIDALI ERANTZUNA
POSTAZ EDO E-POSTAZ,
eta ZORTE ON!

Pedro Asua kalea, 2 - 3.a
01008 Gasteiz
geugaste@grn.es

MAIATZEKO ELKARLANEAN
LEHIAKETAREN
IRABAZLEA:
MAITE ALONSO
ZORIONAK!

GALDERA: Zer esan nahi
du "ARIAN-ARIAN
XEHEZTEN DA
BURNIA" esaerak?

ERANTZUNA: Zailena ere
arrituz egin daitekeela: "zaila
-burnia xehetu- ari eta ari
lortzen da"

("grano a grano se hace el
granero")

MUSIKA

ALAITZ ETA MAIDER

"Auskalo"

(Triki-Elkar)

Taldearen hirugarren diskoa dugu honakoa. Bizi-taupadek eta bihozkadak sorturikoa. Taldeak agerian uzten ditu bere sormenik sentikorra eta afektu musikalik berezkoena, lan fina, aberatsa, popularra, emea eta bitala borobilduz. "Bihotz-taupadarik sumatzen denean, bizitza bere bidea zabaltzen doan seinale ohi da eta, lur hezeetako basoen modura, bere ibilbidean existentzia egunsentiaren kolorez eta freskoaren usainaz zipriztintzen du..."



LACAZA (Kaos Etiliko ohia)

"Fresko freskue"

(Oihuka)

Kaos Etiliko izena ezin izan dute erabili arazo legalak direla medio. Diseinua eta abar guztiak prest zeudela diskoaren fabrikazioa atzeratu behar izan zen, baina taldeak izen berria aukeratu ondoren (LACAZA) martxan da berriro makineria guztia. Orain disko berria eta izen berria. LACAZA. Rocka eta punka, Kaos Etiliko taldearen antzera. Baxuan Dieguillo (ex-Extremoduro eta ex-Cicatriz), gitarran Joseba (Los Padrinos), eta Zigor eta Kepa anaiak (ex-Kaos Etiliko) abeslaria eta baterijolea dira. Oinarri modura punka eta rocka hartuko dituzte, beraz, kantu azkar, arin, eraginkor eta berehala barneratzen diren lelo indartsuek osatuko dute "Fresko freskue". Agurain eta Gasteiztik rock eta punk zirimola datorkigu. "Entzun maite" kanta herrikoia bertsioa egingo dute estreinakoz euskaraz.

EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

KULKI

www.kulki.org

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIJA (ARABA) • 945 430 073

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

IZARRA TABERNA

Eguzkitan, astaleneetatik ostialara

JANTOKI
BEGETARIANOAK

SAN FRANTZESKO XABIERKOAKEN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

NAZIO AITORTZA GASTEIZEN

Edurne Begiristain

Gasteizko Udaleko gobernu taldeak Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) udal bulegoetan tramitatzea debekatu zuen duela bi hilabete inguru. Erabakia ez zen gasteiztar askoren gustuko izan, eta egun gutxitan, hainbat gasteiztarrek euren kexa azaldu zioten Alfonso Alonso alkateari. EHNAren aldeko taldeko hogei bat kidek debekua kentzeko eskaera erregistratu zuten Udalean apirilaren 15ean, eta Alonsoren jarrera salatu zuten hedabideen aurrean. Adierazi zutenenez, Udalak ezarritako debekua Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 1. eta 15. artikulua urratzen ditu; alegia, batetik "gizon eta emakume guztiek duintasun eta eskubide berberak" dituztela, eta bestetik, "pertsona orok herritartasuna izateko duen eskubidea ezin zaiola arrazoirik gabe kendu". Arantxa Nazabal taldeko kideak azpimarratu zuen Gasteizko herritarrek ere eskubide dutela aldarrikatzeko "soilik" euskal herritarrek direla.

PPko buruen erabakiaren ondorioz, Udalbiltzak bulego berria ireki behar izan du karnetak tramitatzen jarraitu ahal izateko. Egoitza berria apirilaren 20an inauguratu zen, jai giroan. Mateo Moraza kaleko lehenengo zenbakiko bulegoa "txikia" izan arren, "egitasmoa oso handia" zela adierazi zuen orduan Jose Enrike Bert Batasuneko zinegotziak. Bertek egin bezala, Joseba Garmendia Udalbiltzako kideak ere Udal Gobernuak EHNA tramitatzeko jarri debekua salatu zuen. Haren hitzetan, euskal herritarrok beren "naziotasun eskubidea gauzatzeko" eskubidea dute, eta hori EHNA abian jarritz islatzen dela gaineratu zuen. (Aipatu, jada 500 eskaera tramitatu eta 150 karnet egin dituztela, informazio eske bulegora hurbildutakoak askoz gehiago izan badira ere).



Arg.: Edorta Sanz

ARTIUM:

Edurne Begiristain

Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa, Artium, errealitate bizia da dagoeneko. Iragan apirilaren 26an ateak ireki zituen Gasteizko Alde Zaharrera begira dagoen eraikin berriak. Hemendik aitzina, Artiumek Arabako Foru Aldundiaren arte garaikideko funtsak kudeatuko ditu, izan ere, duela 30 urte hasi zen Arabako Foru Aldundia egitasmo honen oinarriak jartzen. 13.000 metro koadroko azalera, lau areto, barrualdeko plaza bat, 1.600 artelan eta 20,43 milioi euroko inbertsioa; horixe da Artiumen profila. Museoko hegoaldean erakusketa iraunkorra paratu dute, eta gainerako hiru aretoek aldi baterako erakusketak jasotzen dituzte. Bildumak 1.600 lan inguru biltzen ditu, Euskal Herriko eta Espainiako artistenak batez ere.

Artiumeko profil eta edukiaz gain, zeresanik eman duen ika-mika ere aipatu behar dugu, museoaren inaugurazioan gizarteko sektore ugari baztertuak izan baitziren (besteak



amtsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz

Tel-Fax: 945 26 46 43

IPAR LURMUTURRA

Abenturazaleen



Uda garaia gain-gainean dugu. Askorentzat bidaiatzeko urtarorik apropos eta egokiena.

Batzuetan, ordea, ez da samurra izaten nora joan erabakitzea. Txango alternatibo eta irudimentsua egin nahi duenari ideiak ematea izango da gure asmoa datozen aleetan. Bidaia ezazu uda honetan GEUrekin! Ez zaizu damutuko eta!

***CASA KATXAN**
Hala Bediko saioaren ezinbesteko laguntza eskertu behar dugu erreportaje hauek egiteko

TARIFA: ametsa

Edurne Begiristain

Transeuropa 2001 izenaz bataiatuta dago ale hone-tan kontatuko dizuegun bidaia. Patxi Ibarbiak, Luis A. Rojo "Gorri"k, Ina Rufok eta Javier Cuestak iaz egindako bidaia da oraingoan proposatuko dizueguna. Europa iparretik hegoaldera zeharkatu zuten lau lagunek, Ipar Lurmuturretik (Finlandia) Tarifa (Espainia), hain justu. Bost hilabete eta erdi behar izan zuten abentura ikusgarri hau egiteko eta hiru garraibide mota desberdin erabili zituzten: eskiak, kayak-ak edo piraguak eta bizi-kletak.

2001eko otsailaren 5ean pentsatuta zuten bidaia has-tea, baina azken orduko arazoak zirela medio, azkenean 7an irten ziren Euskal Herritik. Ipar Lurmuturrera astebe-te geroago iritsi ziren, baina heldu baino lehen ezinbes-teko lan bat egin zuten: Stockholm-etik Ipar Lurmuturre-rainoko bidean zehar gainean zeramaten janariaren gehiengoa "deposituetan" utzi. Modu horretan, bidaia hasterakoan janaria gune zehatz batzuetan izango zutela ziurtatu zuten.

Bidaiaren lehen zatian, izotza

Nord Capp edo Ipar Lurmuturra. Hortik abiatu zen abentura. Paraje ederra zela gogoratzen dute bidaiariek, ederra bezain neketsua eta zaila. Trineoak uneoro eraman behar izateak zaildu egin zien bidaia, eta Nuorgameraino errepidetik joatea erabaki zuten. "Paisajearen handitasu-na eta edertasuna, elur-oreinak, aurora borealak, isiltasun zuria, gure hizkuntza ulertzen ez duen jende umila eta solidarioa...", halaxe gogoratzen dute Patxik, Gorrik, Inak eta Javik lehen etapa hori. Hotz handia ere ezin ahaztu, batezbesteko tenperatura 20 gradu zero azpikoa baitzen. Nuorgametik Ivalorako bidaia hobia izan zen, batik bat azpiegitura aldetik, txabola ugari topatu baitzituzten bidean, gaua bero pasatzeko ezinbestekoak. Zazpi egun eta zazpi gau igaroko dira (160 km) Sodankylä-ra heldu



arte. Itsasoa ikusiko dute, azkenean, Piteá-n (Suedian), eta han hartuko dituzte kayak-ak, itsasoa barrena murgiltzeko.

Bigarren pausoa, itsasoa

Lehen etapa baino aisitagoa izango da hau. Hasiera batean Kemi-n hartu behar zituzten piraguak, baina Baltiko itsasoa oraindik izoztuta zegoen eta hegoalde-rantz 400 km gehiago joan behar, Holssundera. Itsasoa euriari, haizeari eta olatuei aurre egin behar izan zieten, eta tarté askotan kostata egin ahal izan zuten aurrera. Hoberena, ezbairik gabe, tenperatura izan zen: 15 gra-dutik gora. Härnosand, Soderhamn, Öregrund, Nyköping,... olatuen artean ezagutuko dituzten herriak izango dira. Bidaiari ez dute apenas itsasontzirik topatu-ko, ez bederen Stockholm igaro arte. Baltikoan emaniko bi hilabeteetan, 1100 km egin zituzten. "Itsasoa ederra da, piraguan ibiltzeko aproposa, naturgunez beteta, hegaztiez jositako irlekin, eta jende abegitsuarekin", halaxe gogoratzen du Inak bigarren zati hau. Baina jada bizikleta hartzeko tenorea da.

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

Azken jauzia, txirringan

Bi hilabetetan hotza, ura, eguzkia, zelai berde-berdeak eta loreak olatuen mugimenduekin uztartu ondotik, bizikleta gainean dira gure lagunak. Hilabeteazpi herrialde zeharkatuko dituzte Tarifara heltzeko. Bidaia, ordura arte baino "erosoagoa" egingo zaie, nahiz eta ipurdiko mina izan. Suedia, Danimarka, Alemania, Holanda, Frantzia... eta Euskal Herria. Etxean egon arren, bidaia ez zen hemen bukatzen, Tarifan baizik. Eguraldi sargoria (40 gradu) pairatu behar izan zuten Espainiako hegoaldera heldu eta bost hilabete t'erdiko abentura bukatutzat jotzeko. Zorionak!



Piteå-Tidningen

Äventyrare laddar för tu



500-milatur

Med apostlahästarna på väg mot Gibraltar

...



DATU INTERESGARRIAK ETAPAKA

1) Ipar Lurmuturra-Kemi (elurreko tartea)

Iraupena: hilabete eta erdi.

Tenperaturak: -30 / +10 gradu.

Distantzia: 800 km.

Bidaia: Ipar Lurmuturretik Kemi-ra arte. Eskiak erabili behar dira, eta trineoak arrastaka eraman. Trineotan jakiak eta elurraren gainean ibiltzeko materiala eramango dute. Eguneko batezbesteko distantzia 20 km-koa da. 140 km-ka jakientzako deposituak utzi beharko dituzte.

Materiala: fondoko eskiak edo telemark-a, pulkak, lozakua, zerria, kanpada, frontalak, labexka, mendiko arropa, iparrorratza eta mapak.

2) Kemi-Lübeck (itsasoko tartea)

Iraupena: bi hilabete.

Tenperaturak: -15 / +15 gradu.

Distantzia: 2.000 km.

Bidaia: Kemi-n lehenengo garraiabide aldaketa egiten da. Gure lagunak eskiak etxera bidali zituzten korreoz eta, aldi berean, Kemi-ko posta bulegora aurretik bidalitako kayak-ak hartu zituzten. Hortik aurrera, Baltiko itsasoaren ertzetik joan eta Lübeck (Alemaniara) heldu behar da. Horretarako itsasoan bi hilabete eman behar dira. Eguneko batezbesteko distantzia 30 km-koa da, eta 200 km-ka jaki deposituak egongo dira.

Materiala: Itsasotik ibiltzeko kayak bereziak. Beharrezko gainontzeko materiala aurreko etapan erabilitakoa da, uretarako egokiagoa den arroparekin, noski.

3) Lübeck-Tarifa (bizikletaz)

Iraupena: hilabete.

Tenperaturak: +10 / +30 gradu (baita 40 ere!)

Distantzia: 2.500 km.

Bidaia: Bigarren garraiabide aldaketa egingo da. Kayak-ak Lübecken utziko dituzte etxera bidaltzeko, izan ere, hortik aurrera bizikleta izango baita garraiabide nagusia. Tarifaraino txirringaz joan behar da, beti hegoaldeko bidea hartuta. Bertan bukatuko da bidaia zoragarri hau. Batezbeste egunero 80 km egin behar dira, eta janari deposituak ez dira beharrezkoak izango, dendak dituzten herrietatik igarotzen da-eta.

Materiala: Bizikleta eta garraiabide mota honetarako arropa egokia. Gainontzeko materiala hasieratik erabilitakoa da.

GOMENDATUTAKO JANARIA:

Esnea, Colacao-a, kafea, gailetak, gurina, mermelada eta mueslia gosarirako. Bazkaldu eta afaltzeko: Arroza, pasta, fruitu lehorrak, pikuak, aranak, esne trinkotua, txokolata, txorizoa, gazta...

Eta bidaiatzen jarraitzeko:

www.unidicom.com/transeuropa

IDAZLE BELAUNALDI BERRIARI SO

Jon Benito:

**“Inspiraziorik ez da inon,
lan egin behar da”**



Arabako hiriburua puntako idazleen topaleku bihurtu da. Lourdes Oñederra, Iban Zaldúa, Gerardo Markuleta, Rikardo Arregi, Kirmen Uribe eta Patxi Zubizarretaren bizileku da Gasteiz, eta Bernardo Atxaga ere ez da urrun bizi. Hirian egin diren errezitaldi eta jardunaldiak idazle gasteiztar eta gasteiztartuen lanaren ondorio ote? Nolanahi ere, gazteen esku literaturara iristeko beste modu bat azaleratzen ari dela argi dirudi. Literatura zabaltzeko modu berriari heldu dio Jon Benito, Gasteizen duela hiru urte bizi den hogeita bat urteko zarauztarrak. Iragan urteko urrian argitaratu zuen “Aingurak erreketan” poesia liburua eta egun lan horretan oinarritutako errezitaldiak ematen dabil, jendearengana heldu eta zerbait esateko asmoz: “kontua zerbait kontatu nahi nuela baitzen”.

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

Garagardotegia

Asteartetik
Igandera
IREKITA

La Blanca

- * Oilasko erreak
- * Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

Leire Lopez de Aberasturi**Argazkiak: Edorta Sanz**

"Aingurak erreketan" titulua du Jon Benitoren lehenengo lanak, eta "izenak deskolokatze bat azaltzen du, bazuetan ez duzula zure lekua aurkitzen: aingurak erreketan aurkitzea ez da ohikoa". Norberaren lekua ezin aurkitu hori azaltzeko olerkira jo zuen idazle gazteak, jendearengana iristeko modu zuzenagoa delakoan. "Zintzoagoa da nire ustez poesia, neurria gustatzen zait eta intimoagoa da, egitasun puntu bat dauka", azaldu du. Gainera, "kontatzeko neurria poesian hartua" zuela aitortu du, egunkari batentzat egin ohi dituen kolaborazioak salbu, ez baitu bestelako estiloan idatzi. Poesiari aspaldi heldu zion gazteak Zarautzen literaturzale talde batek egiten zuen fanzinari esker, eta duela bi urte idatzita zeuzkan poemak artean "batzuek koherentzia zeukatela konturatu nintzen eta liburu forma izan ahal zutela pentsatu".

Nor bere buruarekin zorrotza

Liburua egiteko ideia sortu zenetik "Aingurak erreketan" kalera irten zen arte ia bi urte igaro ziren, Jon apur bat saturatuta utzi zituzten hilabete luzeak. Susa argitalerxeak onartu zuen zarautzarraren azken lana publikatzearen erronka eta "argitaratzea oso argi egon zen lehenengo momentutik, baina lanak jendearengana heldu egin behar zuela erabaki genuen eta oraindik lan egin behar izan genuen" poemak fintzen eta lantzen. Komunikatzeko ahalegin horretan "loreak, irudiak eta floripondioak alde batera utzi eta kontatu nahi nuen horretan zentratzea" gomendatu zioten idazle berri eta aplikatuari. Beharbada, orduan konturatu zen Jon "inspiraziorik ez dagoela inon eta lan eta lan egitea dela" literaturgintzan aritzeko modu bakarra. Auskalo nondik iristen diren musek ez dutela egilearen lana errazten ikuste-



**"Ez da Afrikara joan behar gauza
interesanteak aurkitzeko,
hemen bertan egunero asko
ikas daiteke"**

NON BAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ


ZURE
EUSKAL
DENDAK

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**JANTZI
ETA
OPARIAK**

SARTU
Aiztogile kalea (Kutsi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90



Literatura tabernetara eraman

Jon Benito, Kirmen Uribe, Harkaitz Cano,... Euskal olerkigintza gazteen esku loratzen ari da berriro. "Agian beste irudi bat ematen delako", azaldu du Jon Benitok, "jende normala dela ikusten duzu, parranda egin, kaletik ibili eta lanean aritzen direla", alegia ikastolan ikasi ditugun bizardun triste xelebreekin baino egungo gazteekin zerikusi handiagoa dutela. Errezitaldi, hitzaldi eta kontzertuen bitartez, "beste zirkuitu batean sartzen zara, jendea ibiltzen den

an ez zuela dezepziorik hartu esan du Jonek, baina "urte eta erdi poema berdinekin lanean egon eta gero apur bat nekatuta amaitu nuen". Nork bere buruarekin zorrotz jokatzeari oso zaila dela uste du Benitok, egindakoa zuzentzen aritu baitzen "idatzitakoa niretzat ondo zegoenean". Argitaletxera jo aurretik, beraz, bere buruarekin zorrotz jokatu zuela argi dago; eta aldi berean etorkizunean publikatutakoaz damutuko ote zen hausnartzen ere denbora eman zuen. "Gauzak oso azkar doaz, gaur idazten denak hamabost egun barru ez du balio eta liburua idazten banuen betiko hor egongo zela pentsatzen nuen". Urte erdiaren buruan horrela pentsatzen jarraitzen duen galde-tuta "oraindik" ez dela damutu erantzun du.

lekuetara joanda". Horrela gazteengana iristea errazagoa da, "agian liburutegetara ez delako inor joaten, baina gaztetxera edo tabernetara, bai". Dena den, tabernetan sartzea bakarrik ez dela nahikoa ere badu argi Benitok, "bertan gauza ikusgarriak egitea lortu behar da". Berak ematen dituen errezitaldietan literatura egunerokotasunarekin lotuta dauden gauza arruntetik datorrela azaltzen saiatzen da: "poema bat irakurtzean, hori idatzi nuen egunean halako pelikula ikusi nuela edo klasean nengoe-la ez dakit zer gertatu zela...". Idazlearen lana desmitifikatzeko, "ez baita Afrikara joan behar gauza interesantek aurkitzeko, hemen bertan egunero asko ikas daiteke".



bakea konponbidea

AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA EUSKAL HERRIARENTZAT

batasuna

JOSETXO taberna



"ez dago
pintxorik"

Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracleo Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004



Iñaki Lasa, antolatzaileetako bat



EKAINAREN 16an ONDATEGIN, urteroko GURE ERRONKA!

Leire Lopez de Aberasturi

Argazkiak: Edorta Sanz

Arabako euskalgintzak ekainaren 16an Ondategin du urteroko zita, "Gure erronka" lelopean egingo den Araba Euskaraz. Betiko ideia, ohiko filosofia eta urteroko festa, aurtan bi berrikuntzekin: batetik, aktiboki parte hartzeko inoiz baino aukera gehiago izango dutela gerturatutakoek eta, bestetik, azarotik ekainaren 1a arte iraun duen kultur ekitaldiz osatutako kanpaina luzea izan duela aurretik.

"Aurtan kanpainari garrantzia eman diogu", azaldu du Iñaki Lasa, antolaketa taldeko kideak. "GEU elkarte eta aldizkariarekin batera egin den elkarlanaren bitartez, azarotik hona hilero ekitaldiren bat egotea lortu dugu", gogoratu du. Pailazoak, txotxongiloak, antzerkia eta kontzertuak izan dira azaroan hasi eta oraintxe bertan amaitu den kultur kanpainan. Alde horretatik, aurtengo esperientziak etorkizunera begira "elkarlanerako bide berria" sortu duela uste du Lasak.

Eguneko festak eskema klasikoa jarraituko duela azaldu du Iñaki Lasak, "5,5 kilometroko ibilbidea eta hiru festa gune izango dira, bakoitzak bere programa propioarekin". Naturgune berezi eta ederrean egingo den festan, parte hartzeko ematen duten ekitaldiak antolatzen saiatu da Armentia Ikastolako lan-taldea. "Ekintza eta emankizunak ahalik eta partehartzerik handiena posible egitea izan da gure irizpidea", azaldu du Iñaki Lasa, antolaketa taldeko partaideak, "jende asko biltzen delako egun horretan eta aktiboki parte hartzeko aukera izan behar duelako".



Hiru gune

Lehenengo gunea gazteentzakoak izango da; kirol abenturako ekitaldiak, malabareak, bertsolariak eta musikaz osatutako egitarau luzea izango dituzte bertan. Bigarrena, guztientzako esparrua da, eta egun osoko herri kirol egitaraua prestatu dute; horretaz gain, ETBk standa bertan izango du, bere diskofesta eta Betizu programarekin. Hirugarrena, euskara eta ikastolen etorkizuna diren haurrentzat izango da, baita beraiekin doazenentzat ere.

Ohikoa den bezala, euskaltzale bat omenduko da Arabako ikastolen egun handian, kasu honetan Murgiako abadea izandako Iñaki Oregi; eta baita 60ko hamarkadaren amaieran euskara eskolak ematen ariutako bertako apaiz taldea ere. Zuian lan handia eginiko gizona da eta garai batean, euskarazko klaseak ematen ibili zenean, egindako lana eskertzea erabaki dute antolatzaileek.

Kanta eta logoa

Aurtengo edizioaren kanta azken urteetan Gasteizen bizi den Mikel Urdangarin bizkaitarrak egin da. "Gure erronka",



Araba Euskaraz-eko lelo bera, du titulua eta festarako deia izatearekin batera, "Arabaren errota ez geratzea" eskatzen du, euskararen aldeko lana ez gelditzea, alegia.

Logoa, berriz, Elena Fernandez, Armentia Ikastolako irakasleak egin du. Gorbeia ingurua gogora ekartzen duten maldan gora doan oreina eta mendiarekin "aurre-rabidearen islada jaso duen" irudi polita osatu du Elenak.

Haziz doan proiektua

Ondategin bilduko den diruak duela hamar urte sortu zen Armentia Ikastolaren proiektua bultzatzen lagunduko du. Izan ere, urtez urte ikasleekin batera haziz doan ikastetxeak DBHko ikasleentzako azpiegiturretan erreformak egin behar ditu. Hirugarren urtea da Armentia Ikastolako Araba Euskaraz-eko festa antolatzen duela. Lehenengoz, ikastola jaio eta gutxira hartu zuen antolaketaren ardura, urte zail horietan laguntza ezinbestekoa baitzuen irakasle eta gurasoen kooperatiba den ikastetxeak. 1998an berriz; lehen hezkuntza osatze bidean zegoenez, azpiegiturak egokitzeko fondoak behar zituelako. Egun lehen hezkuntzan zeuden haurrak DBHko lehenengo mailan daude jadanik, eta ikastolak neska-mutilentzako gela eta azpiegitura berriak behar ditu berriro ere.

ADI!!

- Festa **naturgune** ezin hobean egingo dela kontuan hartuz, antolatzaileek ahalegin berezia eskatzen diete partehartzaile guztiei. Antolaketa ere lan handia egingo du Zigoitiko lurrek milaka lagun azarna gehiegi nabaritu ez dezaten, baina bakoitzaren esku dago ingurua zaintzea.

- **Nola joan.** Autobusak irtengo dira Gasteizko Arriaga parketik Ondategira. Araba Euskaraz aurreko egunetan horien berri eman-go dute antolatzaileek egunkarietan ipiniko diren iragarkien bitartez. Autobusez ezin joan daitezkeenei autobiatik iristea eskatzen zaie, aparkalekuak gertuago izango dituztelako, eta inguruko herrietako bide bazterrak kotxez beteta ez uzteko.

- 300 lagun baino gehiagok lan egin beharko dute Ondategin ekainaren 16an festa borobila izateko. **Lagundu nahi baduzu, Armentia Ikastolara deitu...** Eskertuko dizute!... Euskaraz esker-tuko dizu!

KULTUR ERROTA

GEU elkarte eta GEU aldzikariaren laguntzaz



EKAINAK 1:

MORGAN PIRATA antzerki saioa
umeentzat, 18.00etan. GOPE-
GIKO FRONTOIAN

KARIDADEKO BENTA (Jon Maia eta
taldea), 21.00etan. Toki berean.



Gure erronka

Erreza da hura maitatzea
Ahotan urtzea
Eta lurruntzea

Erreza dantzan egitea
Doinuaz batera
Aurrera eta atzera

Jaia heldu zaigu guru
Honi eta hari
Ta zuri, ta zuri

Hau da gure erronka

Ez dadila gelditu errota

Hau ez al da ba gure erronka

Araban

Ez baita kontu arrotza
Bilatu behar da
Gure barrenean

Amasa badu soberan
Eragin dezagun
Auspoa, auspoa

Jaia heldu zaigu guri,
honi eta hari
ta zuri, ta zuri

Hasier Oleaga, bateria
Josu Izagirre, kontrabaxua
Josu Zabala, soinu txikia
Alex Ruiz de Azua, aho soinua
Aitor Rubio, kitarra
Bingen Mendizabal, bibolina
Musika, letra eta ahotso: Mikel
Urdangarin
Bakardade kantoian
(Gasteiz) grabatuta

1gunea ANGELU	2gunea BENGOLARRA	3gunea SARRAGOA
GOIZ-EGUERDIAN	GOIZ-EGUERDIAN	GOIZ-EGUERDIAN
musika animazioa ekintza partehartzaileak malabarismoa, rokodromoa, globo aerostatikoa-rappel, goming, arku-tiroa... bertsolariak manex agirre, sustrai colina, oihane perea, ruben santxez, iñaki viñaspre	antzerkia zirko ttipia ipu in kontalariak herri kirolak urrezko aizkora – errebantxa zigoitiako herri kirolak taldea etb betizu	hasera ekitaldia musika animazioa dantzariak oketa alai zigoitiako dantza taldea pailazoak tutic ere clown bertsolariak andoni egaña, igor elortza, unai iturriaga, sebastian lizaso
ARRATSALDEAN	ARRATSALDEAN	ARRATSALDEAN
kontzertuak 4 itzal ken 7 ene bada	euskadi gaztea disco festa pilotari profesionalak	antzerkia goitibera pailazoak tutic ere clown musika animazioa larrain dantza txatunga benbe kontzertua alaitz eta maider

Arkeologi indusketak ARABAN



LEIRE LPZ. DE ABERASTURI

Argazkiak: Edorta Sanz

Arabian dauden indusketetan lan egitea udara igarotzeko aukera desberdin bat izan daiteke historian aditu eta zale-tuentzat. Herrialdean 1.500 arkeologi gune (ikertuak, aztertutak) daude, horietako hiru aktiboak, bertan lanean ari direlako: Gasteizko Katedral zaharra, Iruñako Veleia herria eta Biasteriko La Olla-koa.

Eliseo Gil arkeologoa, Iruña eta Biasterin lanean ari diren taldeen buruak "Indiana Jones eta La Momia bezalako filmek arkeologiarako zaletasuna sortzen dute, nahiz eta pelikuletan ikusten dena errealtatearekin zerikusi gutxi izan", aitortu du irribarrez. Baina kapela eta zartailua alde

batera utzita ere, gure arbasoen eguneroko bizitzan arakatzeko aukera izaten da. Horixe baita arkeologiaren bertuterik handiena, Gilen ustez: "antzinako eguneroko bizitza ezagutzeko duen gaitasuna". Urteetan zehar arkeologia arlo autonomoa ala historiaren parte bat den eztaba-datu da, baina egun zalantza gutxi geratzen dira: "historiagileak gara eta historia egin nahi dugu, baina zientzia autonomoa dela argi aitortuta dago".

"Aurpegia jarri"

Historiagileek lortzen ez duten zerbait ematen du arkeologiak: "Komunitateetako egunerokotasunaren berri ematen du eta historiaren erreferentziei aurpegia jartzen die".

Baina horretaz gain, historiaren ezinbesteko osagarria ere bada arkeologia, "historia gutxi gora-behera zehaztuta dagoelako, baina gutxi gora-behera bakarrik" nabarmendu nahi izan du ikerleak. Horregatik, "izkriburik ez dagoen garaiez ditugun berri bakarrik arkeologiak emanak dira,

Erromatarren hiri zaharraren azpian "herri indigena bat zegoela egiaztatu dute"

nahiko zentzuzkoa zen erromatar garaian Euskal Herriaren hiriburu modukoa zenaren azpian beste herri garrantzitsu baten aztarnak aurkitzea".

Gasteizen, berriz, "Katedralean egindako ikerketei esker ere hiri zaharraren azpian herrixka bat zegoela ere bada-kigu". Baina benetako balorazioa egiteko gai izateko urteak pasa beharko dira, "agian oso martxa geldoa daramagula dirudi, baina esku artean ditugun milaka datuak kontuan hartzen badira ez da horrenbesterako". Iruñako proiektua sendotzeko, adibidez, hamar urteko epea finka-

baina ez hori bakarrik, Erroma garaiko historiari buruz genituen ideia batzuk arkeologoen egindako ikerketek zuzendu dituzte".

Arabako indusketen kasuan nahiko argi agertzen da osagarritasuna. Iruñan, adibidez, erromatarren hiri zaharraren azpian "herri indigena bat zegoela egiaztatu dute; izan ere,

tu du Eliseo Gilen taldeak, "lanak kontu handiz egin behar dira, aurrera egin ahala datuak, geruzak, apurtzen direla-ko. Beraz, datuak behin baizik ezin daitezke 'irakurri'".

Iruñeko adibide txarra

Iruñeko Gaztelu plazan gertatutakoa aipatzean, aparkalekuak egiteko orduan aurkitutako aurkikuntzak estali nahian ibili zela Nafarroako hiriburuko Udala, "Ene bada!", esan du Eliseo Gilek, bere iritzia azaltzeko. "EAEn ezin izango zatekeen horrelakorik gertatu, Nafarroa delako Estatu osoan horrelako ondasunak babesteko legerik ez duen komunitate autonomo bakarra", azaldu du. EAEn 1990ean sartu zen indarrean Kultur Ondarearen Legea. Horren ondorioz, gune babestuetan inolako lanetan hasi aurretik arkeologi lanak egin behar dira ondasun historikoen ez dela apurtuko bermatzeko. "Horrek esan nahi du egiten diren lanen % 98 kontrolatuta dagoela; zer edo zer gertatuko zaigu kanpoan, baina oso gutxi", eta horri esker "ikerketek izugarri egin dute aurrera", azaldu du arkeologoak. Gehien kontrolatzen diren guneak

"Katedralean egindako ikerketei esker ere hiri zaharraren azpian herrixka bat zegoela ere badakigu"



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

hirietako alde zaharrak dira zalantzarik gabe, eta Gasteizen "aurkikuntza ugari izan ditugu hainbat lan egiten hasi direnean, ez bakarrik Katedral zaharrean, baita bestelako etxeetan ere".

Museo berria, jendearengana iristeko

Indusketen ondorioak jendeak ezagutzea da lanen helburua, "zabalpen zientifikoa garrantzitsua eta ezinbestekoa da, baina publikoarengana iristea da guk nahi duguna". Horregatik, oso begi onez hartu du Arkeologia Museo berria egiteko proiektua. Izan ere, Arabak dituen 1.500 ikerketa-guneetako emaitzak ez dira dagoeneko ezagutzen dugun egoitzan sartzen.

Egungo Museoa 1975. urtekoa dela gogoratu du Eliseo Gilek; orduan egin ohi zen bezala, eraikuntza eder bat zaharberritu eta "zerbaiten egoitza" bihurtu zuten. Ondorioa da "txiki geratu dela, oztopo arkitektonikoez beteta dagoela, eta abar". "Museoan dauden edukiak era egokian aurkeztea da gauza; adibidez, Katedralak izan duen harrera onak egin den publizitate kanpainarekin

Eliseo Gil

zerikusia du", bere iritziz, gauzak modu erakargarrian aurkeztean jendeak erantzuten duela garbi dagoelako. Era berean, Eliseo Gilek batzuetan museora joatea baino erakargarriagoak diruditen indusketetarako bisitak ez direla zertan adituentzat izan ere gogoratu du.

Nola edo hala, jendearen erreakzioak batzuetan harritzen ditu ikerleak, eta ondarea baloratzen ere ikasi behar dela argi dago. "Gertatu izan zaigu erromatarren garaiko horma zaharberritu baten ondoan duela 50 bat urteko harri zahar batzuk egotea, kasualitatez. Ba batzuei "arkeologikoagoak, iruditzen zaizkie zahar horiek berritutakoak baino, eta arreta handiz begira geratzen dira", azaldu du Eliseo Gilek.

Lan egiteko aukerak

- Unibertsitateko ikasleek ARABAKO CAMPUSAK garatzen dituen programetan parte har dezakete.
- ARKEOLOGIA MUSEOAK Araban egiten diren lan guztien berri dauka. Beraz, kontaktuak behar izanez gero, horiengana jo daiteke.
- Iruñako proiektuak Eusko Jaurlaritzako Gazteria sailarekin NAZIOARTEKO LANERAKO CANPUSA antolatu du.

Azken horretan parte hartzeko, prestakuntza berezia eskatuko da, lan oso espezializatua delako: Humanitate arloko prestakuntza zabala eta curriculum zehatza.

Nora joan

Zenbait hilabetetan zehar bisita programa zehatzak dituzte:

- Katedral zaharra
- Iruñako azken ikerketak

Urte osoan zabalik daude:

- Biasteriko indusketak
- Iruñako hiri zaharra



eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org



www.gazteabertzaleak.com

ANTZERKI FRESKOA

Sevilla, Badajoz, Valladolid, Galizia... eta, noski, Euskal Herri osotik ere bidaiatu dute Detritusekoek euren antzezlanen injekzio komikoa edozein motatako hartzailegoari ziztatuz. Euren lanetan umorea izanik faktore nagusia edukia ere ez da nolanahi lantzen, izan ere, antzezlanetarako aukeratutako gaiak interesgarriak izan ezezik tentu handiz ukitzen dira; atzetik ordu askotako lana dagoela ezin ukatu, hortaz. Izenik izen, "Detritus Corazón" (Logroñoko Jaialdian saritua izan zena), "Gü-Gü Txupete" eta hile honetan estreinatuko den "Las Punkys también lloran" antzezlanak ezagutzen zaizkio taldeari.

Josune Velez de Mendizabal
Argazkiak: Edorta Sanz

Detritus Teatrus orain dela hiru urte besterik ez jaio bazen ere, Belen Nevadok eta Javi Huetek bizitza osoa dedikatu diote antzerkiari (12 eta 19 urte, hurrenez hurren). Latiriki antzerki taldean elkar ezagutu eta egun Ruben eta Alexekin batera (soinu eta alde teknikoaren ardura-dunak), hartzailegoan entretenimendua, komunikazioa eta interaktibitatea bilatzeaz gain, euren oso gustu-



koa den antzerki munduan dabilta murgilduta.

Sexua naturaltasunez

Komikotasuna eta sexua dira "Detritus Corazón" eta "Gü-Gü txupete" ikuskizunek amankomunean dituzten ezaugarriak; lehenengoak bikoteen arteko sexuari ekiten badio, bigarrenak eszenatokia asexoria bilakatzen du. "Zama kendu nahi diogu gai honi, dibertigarri egin nahi dugu", azaltzen du Belenek, "prestatzeko sexuari buruz asko irakurri genuen, dibertigarria izateaz

**"Egiten duguna
baloratua izan dadila
aspaldiko borroka
dugu"**

gain jendea informatzea ere bilatzen baikenuen, gaia errespetuz landuz sexista izan ez zedin". "Ez dugu ezer ezkutatu behar, gu sexudun pertsonak garen heinean sexua gure baitan daramagu, hortaz, sentimenak ere birpasatzen ditugu eszenatokian, zapoak, usainak, dastamena, etab.", azpimarra-tzen du Javik, "eta objektuak erakusten dira...; askotan txinatar bolak zer diren entzun dugu, baina ikusi?!...; jendea harrituta gelditzen da atera-tzen ditugunengan".

Hortaz, antzezlanak ekoizten ari zirenean lana ixten duen 'pastelaren ginda' bururatu zitzairen, baita gidoiari gehitu ere. "Denbora guztian sexuari buruz aritzen gara, antzezlanak berak eskatzen du; horrela amaitzea baino era naturalagorik ez dago"... (...Zuek zarete zuek saltse-roak, nola amaitzen den jakin nahi?...).



Javi Huete eta
Belen Nevado aktoreak



Sorpresa efektua

Inportantea oso da hartzailegoak gehitu diezaiokeena antzezlanari eta, beraz, Detritusek beti bilatu izan du jendearekiko harremana sortzea. "Jendeak parte hartzen du ikuskizunean, eszenatokira igo eta eurek momentuan nahi dutena gehitzen diote, hala nola, Detritus Corazón-en behin neska batek bularretakoa kendu zuen", dio Belenek, "guk jendeak erridikulua senti ez dezala bilatzen dugu eta nire ustez eszenatokian gurekin egon direnak pozik sentitu dira hor egoteagatik".

Era berean, "Gü-Gü txupete"n mundura etorri bezala agurtzen gaituzte Belenek eta Javik, "oso dibertigarria da, oso ondo jarraitzen digute kontua; pentsa dezakegu momentu honek tentsioa sor dezakeela baina jendeak txistu eta txalo egiten du...; are gehiago, gure kontura ligatu duen jendea ere badago (...kar, kar, kar...). Giroa lortzen dugu, lasaia eta gustura; izan ere, sexua egiten duen jendeak ez du zertan pornoa egin, ezta gela ilunak edo 'garito' arraroak bilatu ere. Sexua dibertigarria da eta edonork egin dezake nahi duen tokian".

Belaunaldien joan-etorria

Kafe-antzokiaren egoera ez da nolana hiko. Garai txarrak ezagutu dituen arren egungoa ere ez da nahiko lukete-

Kulturgile hauek eskatzen dutena kafe-antzokia lantzeko baldintzak betetzen dituzten lokalak dira

na. "Gure hastapenetan gaztetxeak betetzea oso erronka zaila zen eta, oster, jendea haietara erakartzea lortu dugu; lehen heltzen ez zen hartzailegora hurbiltzeaz gain, erantzuna ere ezin hobeia izan da eta, hala eta guztiz ere, gure lana garatzeko lokalik ez dago", erreflexionatzen du Javik. Kulturgile hauek eskatzen dutena antzokia eta tabernaren arteko aretoak dira, kafe-antzokia lantzeko baldintzak betetzen dituzten lokalak hain zuzen ere.

Bestetik, antzerkilariek pairatzen dituzten zailtasunen artean diru faltarena dago. "Gogoia dago gauza berriak egiteko baina dirurik, berri, ez eta ezin dezakegu lana oparitu", dio Belenek, "bokazioz lan egiten dugu baina hona egunero bost ordu etorri behar da saioa prestatzeko... Egiten duguna baloratua izan dadila aspaldiko borroka dugu; hasieran solidarioa zara baina horrekin ez da jaten... Ulertu behar dute lanean ari garela eta gauzek kostu bat daukate-l".

Atzetik datozen aktore berriei, aldiz, Javik errealtateari buruz hitz egiten



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

DI-DA

ANTZEZLAN BAT:

-Belenek: "Starwhites", neska punky taldea, garai batean Principalera etorri zena; antzokia bete zuten.

-Javik: "Muerte accidental de un anarquista", Gero-rena, orain dela 18 urteko antzezlan, eta ez egun antzezten dena.

AKTORE BAT:

-B: Espe Lopez, Legaleont Antzerki taldekoa.

-J: Oscar Mata, talde berekoa.

AMETS BAT:

-B: Egiten dugunarekin era duin batean bizi ahal izatea.

-J: Komertzial ez bilakatzea eta saiakeran bizirik iraun.

UMOREA EDO DRAMA:

-B: Nahi duzuna kontatzeko bai batuk zein besteak balio du.

-J: Momentuan interesatzen zaidana.

KALEA EDO ANTZOKIA:

-B: Kalea dut gustuko..., baita antzokia ere.

-J: Leku ezberdinak oso dira...

INPROBISAZIOA:

-B: Azkar baina orain!

-J: Beti dago, beti egon behar du.

IKUSLEAK:

-B: 'Kasketa' irekia duen edonor.

-J: Ez daukat hobespenik.



die: "Oso latza daukate, zerbait berria ekartzen badute, arrakasta lortzeko oso ona izan beharko du, bestela joan daitezela telebistara; azken finean, hori baita jendeak gustuko

duena". Belenen hitzak itxaropen-tsuagoak dira "gure inguruan desanizatzekeo nahikoa gauzak daude, beraz, saiatu eta sines dezatela egiten dutenean... Aurrera jo!".

LAS PUNKYS TAMBIÉN LLORAN

Kulebroi horren izena dakarkigu burura hile honetan estreinatuko den Detritus Teatrus-en antzezlan berriak. 80 hamarkadatik egungo bizimodu bitartera doan antzezlan honek punkyen kronologiaren zehar irakurketa dibertigarri nahiz gogorra egiten du. "Bertan gelditu zen garai bat dugu 80ko hamarkadak eman ziguna. Egun punkyak egon daitezkeenik ez dut zalantzan jartzen baina ez da gauza bera, ez dituzte gauza berdinak biziko, sistemaren kontrako amorruez beteriko garaia zen atzean utzitako hura...". Horrela azaltzen du Belenek ekainaren 14an Aldabe gizarte etxean aurkeztuko den baka-rrizketa honen inguruko mamia.

Bertan antzerkiaz gain garai bateko musikaz ere gozatzeko aukera eskaintzen du saioak; hain justu ere Belenek punky erritmoa darama zainetan (garai batean "La seta pasote"ko abeslaria izan baitzen). Ramon Cuberok eginiko musika eta Belenek idatzitako letrak bost abestiz osatzen den CD batean bildu dira eta hauek Javi Huete zuzendu antzezlanean entzun ahal izango dira. "Betiko kantu kañero bertsionatuek gehi imajinazioak osatzen dute bost kanta hauek; borroka, kontraesanak, zalantzak... elkartzen dira kokatzen ez duzun mundu batean, non bizirik iraun behar duzun..." "Las punkys también lloran, ya no tienen dónde ir, es tarde para morir...", dio kantak.

INPROBISAZIOAREN KOLPEA

Pasartearen artean bi gogoratzen dituzte Detritus-eko kideek. Javiren buruan Gü-gü Txupete saioa antzezten ari zirela gertatutakoa da. Saioa bukatzen ari zela 30 eta 60 urte bitarteko emakume taldea gerturatu zen aretora; bazkari

batetik zetozen eta handik pasatzean antzezlan ikusten geratzea erabaki zuten. "Gu biluzten garenean konpresak, ezpagnetako barrak, paperezko kuleroak eta poltsoan zeukaten denetik botatzen hasi zitzaizkigun!, zelako 'subidoia' zeukaten..., 'pena senarrak ekarri ez izana' oihukatzen zuten".

Beste behin Legazpiko Herriko tabernan ari ziren Detritus Corazón antzezten eta Belen zorabiatu egin zen. Gauzak horrela, segituan anbulantzia deitu zuten, baita ertzaintza agertu ere. "Larrialdietarako telefonora deituta zerbitzu biak agertu ziren, are gehiago Herriko batetik deitzen gurela jakitean. Eszenatokiak atzealdean ate bat zeukan, kamioak deskargatzeko hain zuzen ere, eta aurrean publikoa zegoen; hortaz, ertzaintza heltzean atzeko atetik sartu eta zuzenean eszenatokian agertu ziren...; imajinatu ezazu NANA eskatuz eta ni Johnniz jantzita lurrean botata..., gero jarraian anbulantziakoak ere sartu ziren... (barreak)... Saioa bertan behera gelditu arte jendeak antzezlan bera zela pentsatu zuen", dio barrezka Belenek, "are gehiago, eritetxean sartzean erizainek izaren azpitik neska edo mutila nintzen begiratzen zidaten guztiz aluzinatuta, ni Johnniz mozorrotuta bainindoan zipote eta guzti...".



"Las punkys también lloran"

BAKARRIZKETA

Aktorea: Belen Nevado

Zuzendaritza teknikoa: Javi Huete

ESTREINALDIA: Ekainak 14, Aldabe

Gizarte etxeko antzokian, 20.00etan

("Azalez azal gaitzean" kanpainaren barruan)

LUMA: EUSKARAZKO DENBORA-PASA ETA HITZ JOKOEN HILABETEKARIA



Euskaraz egiten den lehen denbora-pasa eta hitz jokoan hilabetekaria argitaratu du Irungo LUMA enpresak. LUMA izeneko aldizkariak, aurtengo urtarrilean sortua, dagoeneko bere bosgarren zenbakia kaleratu du. Proiektu honen inguruko xehetasun gehiago jakin nahian mintzatu gara Iñaki Agirresarobe, Prexen Gastearena eta Joxan Elosegirekin.

• Zuek baino lehen beste batzuk ari izan ziren euskarazko hitz jokoak asmatzen. Nor izan duzue aitzindari?

JOXAN ELOSEGI. Mintzaira guztiek -hiztun guztiek, esan beharko genuke- dute beren alderdi ludikoa, eta aberatsa da zentzu horretan euskaldunon ahozko ondarea -bertsoak, zirtoak, titxoak, pipitakiak, asmakizunak, kantuak...-, azkenaldi honetan bazter samar gelditu zaiguna. Guk lantzen dugun alorra, ordea, idatzia da, paperean jarria, berria beraz. 1883koak dira aurkitu ditugun euskarazko lehen joko idatziak, Euskal-Erria aldizkarian hain zuzen ere. Egungo hieroglifikoen moduko jokoak ziren eta Mutadi edo Isitza zuten izena. Ondoko alean ematen zuten haien 'askantza' edo soluzioa. Ez dakigu euskarazko lehen hitz gurutzatuak noizkoak diren -kontuan har bedi, 1913ko abenduaren 21ean argitaratu zituela New York World egunkariak lehen hitz gurutzatu modernoak- baina kartzelarekin lotu beharko genuke joera hori, ongi baitakigu 1936ko gerraren ondorioz Francoren kartzeletan zeuden preso euskaldun batzuek horrelako jokoak asmatzen zitzutela barruan, denbora-pasa. 1960. urteetan, han eta hemen hasi ziren gauza txiki batzuk argitaratzen eta hurrengo hamarraldian nolabaiteko itxura hartu zuten Zeruko Argia eta Anaitasuna aldizkarietan. 1977tik aurrera, gurutzegramatik tipikoa bana eskaintzen hasi ziren egunoro Deia egunkarian, eta 1980. urteen hasieran ekin genion lanari Luis Manterolak eta biok. 1991n sortu zen LUMA.

• Nola jakin liteke hitz joko bat ona den?


IÑAKI AGIRRESAROBÉ. Jokozaleak esan behar dizu hori, ez sortzailerak. Sortzailerak garen aldetik, muga batzuk jarriak dizkiogu oro har geure buruari, baina ez dira inolaz ere bete beharreko arauak. Adibidez, guk ez dugu alderantzizko definiziorik proposatzen, ez zaigu bidezko iruditzen, baina horrelakoren bat egoteak ez du hitz joko erabat itsusten. Eta ez ditugu beltzuneak lerro berean elkarren segidan ipintzen. Bestalde, koiziente bat -laukien guztizko kopuruan zati beltzuneen kopurua- erabiltzen dugu hitz gurutzatuetan, aurkezteko modukoak diren jakiteko. Oro har, oso egokia da zortziko edo zortzitik goitiko koizientea duen joko bat, egokia zazpi-zortzi bitartekoa, eta kaxkarra seitik beheitikoa. Hitz gezidunen kasuan, oso egokia da seiko koizientea, kontuan hartu behar baitira irudietako laukiak. Beltzuneen kopurua bezala, beltzuneen antolamenduak kezkatzen gaitu, taula guztian orekatsu banatzea baita helburua. Ez da horren erraza. Konturatzen bazarete, askoz beltzune gehiago izaten da maiz taularen behe-eskuinaldeko txoko aldean goi-ekerraldekoan baino, lana erraz hasi eta nekez bukatzen dugun seinale.

[illegible]

1. Gotzaiak. 2. Detektagailu. Ugaztun karraskari jauzi arin. 3. Bizkaiko udalerria. 4. Belardi lau samarra. Erdi, hitz elkarketan. 5. Emakume izena. Berrogeita hamabi. Bokai bikoitza. 6. Ildi, hitz elkaketan. Irmo. Lehen bokala. 7. Neskatzia. 8. Kontinentea. Erroa, sustraia. 9. Iparretarrak. Dago. Luzera neurri zahar, hiruz kana bete. 10. Gandu. Iqaro.

1. Ardi zaina. Berrogeita hamar. 2. Testu barruko akotazioak mugatzen dituen ortografia zainua. 3. Mozkor. Bizkaieraz, lehor. 4. (infin.) Zapatu: Dantza nota. Sufrea. 5. Her., fraidea. Musika nota. 6. Bat. Gipuzkoako herria, Goierri. 7. Suari dario-na. Zezen zikiratua. Fofsorona. 8. Metal estimatu. Koipea. 9. Babesegun. Alkohol edari. 10. Nafarroako mendialdea. Emakume izena.

Bost marrazki hauen arteko bi baino ez dira berdin-berdinak. Zein?



Bost zantzu zeri edo nori buruz ari garen aurki dezazun. Zenbat eta azkarrago aurkitu, orduan eta puntu gehiago lortuko dituzu.

Leku askotan
erabiltzen
naute.

Kolore asko
izan ditzaket.

Artilezkoa
izan naiteke,
baita larruz-
koa ere.

Egun hotzetar
erabiltzen
naute, bikote-
arekin batean.

Bost hatz
ditut eskuar-
ki, ez ordea
boxeoan.

**NOR
NAIZ NI?**


	Gehiena ▾		Belazea, pentzea ▾		Material mota ▾		Erdi Amerikak estaltua ▾	
	◆ Izena ▾		Komentario ▾		Buzk-gehiagi ▾			
			Hedabide mota ▾					
			Ur izoztuak ▾					
◆ Deitura ▾		Larrua kendu ▾	Ez ... ez eziz Inakurtzen duena ▾		Musika nota ▾			
Txorizkoak ▾		Karamiak ▾			Suari dario ▾			
▾		▾	▾		▾		Röntgen ▾	
							Bidea ▾	
Segi ▾					Ibail nafarra ▾			
Arraso ▾					Barazki mota ▾			
▾			Sodioa ▾		▾		Zilarra ▾	
			Lehen bokala ▾				Sorginak ▾	
Nau ▾			▾		Malgu ▾			
Ertijo-jantzi ▾			▾		Modu ▾			
			Esneki mota ▾		▾			
			Egiptoko jainkoa ▾					
Sorburu ▾			▾				Euskal tonema ▾	
Bozkario ▾							Gizon izen arabiar ▾	
▾			Bareak ▾		▾			
			Gar ▾					
Bostekoak ▾	Bete ▾		▾		Apariz ▾			
	Sulvea ▾				Potasioa ▾			
▾	▾		▾		Iper, izan ▾			

◆Bertsolari hermaniarra

PREXEN GASTEARENA. Batzuetan, aspergarri gertatuko zaizkio hainbati proposatzen ditugun hitz jokoak. Arriskua hor dago, eta gogotik saiatu beharra daukagu gutaz jabe daitekeen arrunkeriatik aldentzen. Alabaina, ongi kontuan hartu beharra dago nahita errepikatzen ditugula zenbaitetan hitzak, moduak eta definizioak, jendearen harrera eta sarrera errazteko. Ez ditugu gogora datozkigun hitz guztiak aurkezte, egunoroko hizkerakoak dira erabiltzen ditugun gehienak, eta kontrapuntu gisa bideratzen ditugu besteak. Eta definizioetan argi jokatzeko saiatu gara, modu didaktikoan. Jokozaletasuna bultzatu nahi izan dugu eta didaktismoa nagusitu da orain arteko lanean, egia da. Baina ezinbestean, gaineratu beharko genuke. Nolanahi ere, didaktika hizkuntzaren atal bat baino ez da, eta hizkuntza biziak behar du izan gure lanaren oinarria. Horretan saiatuko gara aldizkarian.

IÑAKI AGIRRESAROBÉ. Euskara batuak eman digu lan honetarako aukera. Hitz jokoetarako euskarria eta oinarria eskaini digu euskara batuak. Baina aditz formak eta ortografia arauak dira nagusiki euskara batua, hau da,

Bat eta bera ematen dute, baina bi bakarrik dira berdinak. Zein?





EMAIZE

Sexologia Elkartea

AZALEZ AZAL GAITEZEN

III. Sexualitatea + Gazteria Kanpaina

Sexualitateari buruzko kanpainaren hiru-garren edizioa prest dugu dagoeneko, ekaineko lehenengo hamabostaldian burutuko dena; sexualitateari buruzko hainbat kultur ekitaldi egingo dira, hiriko gazteei zuzenduta.

"Azalez azal gaitezen" kanpainaren edizio honetan SENTITZEKO GAITASUNAREN GARAPENean indarrak jarri nahi izan ditugu, SENTIMENEN MUNDURA IREKITZEA berekin dakarrena... ..ikusmena, usaimena, ukimena, entzumena, gustua...

"Sentimenak oinarrizkoak dira eta,
munduarekin lotzean,
besteekin lotzen gaituzte"

Sentimenen eta sentsualitatearen dimentsio honetara irekitzeak gure sentimenduekin eta gorputzaren bizipenen aurrean dugun jarrerekin lotzen gaitu; gainera, ongizatea eta gure errealitatearen zati diren beste pertsona batzuekiko komunikazioa errazten digu.

Errealitatea askotarikoa da beti; horixe da pertsonen sexualitatearen ezaugarrietako bat eta interesgarria iruditu zaigu kanpaina honen abiapuntutzat hartzea. Pertsonok, emakumeok nahiz gizonok, ditugun jokabide, desira, sentimendu, sentsazio... sexualen aniztasuna eta aberastasuna. Eta berarekiko errespetua.

Garrantzitsua iruditzen zaigu gazteen eta nerabeen aisialdi eta denbora librearen une eta topaguneetan sexualitatearen presentzia agerira azaltzea, pertsona bakoitzaren sexualitatearen onartzea -berau den bezalaxe- errealitatean integratzea ahalbidetzeko.

Ezagutzera eman nahi ditugun hiriko taldez eta elkarte osatutako koordinakunde batek antolatu du kanpaina, Gasteizko Udaleko Gaztedia Zerbitzuarekin batera.

Informazio gehiago nahi izanez gero: Emaize Sexologia Elkartea.

Errege Atea 3, 4. bulegoa. 01001-Gasteiz tel. 945-265896; e-maila: emaize@euskalnet.net



EGITARAUA

EKAINAREN 3TIK 14RA:

Erakusketa: "A siento".
8.30etatik 21.00etara
Arte eta Lanbide Eskolako paraninfoan (Peñafloridako Kondearen plaza).

ASTELEHENA 3:

"Azalez azal gaitezen"
kanpainaren inaugurazioa.
19.30etan
Arte eta Lanbide Eskolan
(Peñafloridako Kondearen plaza).

ASTEARTEA 4:

"Txoko-Sex".
18:30etatik 20.00etara
Aldabe Gizarte Etxearen inguruetan.

"Aldi baterako tatuajea".
18.30etatik 20.00etara
Aldabe Gizarte Etxearen kanpoaldean.

"Sentimenen tunela".
19.00etan
Arte eta Lanbide Eskolatik
Aldabe Gizarte Etxeraino joango da, Diputazio eta Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kaleetatik barrena.

"Chocolat" filma.

20.00etan

Aldabe Gizarte Etxeko antzokian.

OSTIRALA 7:

"Txoko-Sex".

18:30etatik 20.00etara

Aldabe Gizarte Etxearen inguruetan.

Dantza erakustaldia.

Euskal Herriko Capoeira

Angola taldea.

19.00etan

Aldabe Gizarte Etxearen inguruetan.

Ikutu Dantza: "Bostak S2" eta "Tetralösch".

20.00etan

Aldabe Gizarte Etxeko antzokian.

ASTEARTEA 11:

"Txoko-Sex".

18.30etatik 20.00etara

Aldabe Gizarte Etxearen inguruetan.

"Aldi baterako tatuajea".

18.30etatik 20.00etara

Aldabe Gizarte Etxearen kanpoaldean.

"Sentimenen tunela".

19.00etan

Arte eta Lanbide Eskolatik

Aldabe Gizarte Etxeraino

joango da, Diputazio eta

Jesusen Zerbitzarien

Fundatzailearen kaleetatik

barrena.

"Y tu mamá también" filma.

20.00etan

Aldabe Gizarte Etxeko antzokian.

OSTIRALA 14 :

"Txoko-Sex".

18.30etatik 20.00etara

Aldabe Gizarte Etxearen inguruetan.

"Sentimenen tunela".

19.00etan

Aldabe Gizarte Etxeraino

joango da San Frantzisko aldatik eta Aitzogile kaletik.

Detritus Teatrus taldearen

"Las punkis también lloran"

antzerki ikuskizunaren estreinaldia.

Aldabe Gizarte Etxeko antzokian.

20.00etan

Ikuskizunak doakoak dira. Aldabeko gizarte etxeko antzokian izango direnetara joan ahal izateko, ikuskizunaren egunean bertan gizarte etxeko Argibide Zerbitzuan gonbidapena jaso beharko da.

"Azalez azaltzera" gonbidatzen zaituztegu...

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua
euskaraz
bizi



PITILIN GORRI

GASTEIZ

Tren geltokiaren ondoko

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN

MARTIN



1976. urtea

Espainiako junior mailako kroseto txapelduna (1981)

5000 m-koa (1982)

Senior mailan Espainiako kroseto txapelduna (1990, 1992)

Helsinki maratoiaren irabazle (1993)

Espainiako errekorra ondu zuen

Bostongo maratoian (1994)

Europako txapelketa irabazi

Helsinki (1994)

Rotterdamgo maratoiaren irabazle (1995)

Uda honetan ere, **AEKn onena**
2, 3 eta 5 orduko ikastaroak. Autoikaskuntza gela.



Izena eman AEKn:

Aixkiria. Jose Mardones 8. Tf: 945263540

aixkiria@aeknet.net

Amaiur. Peru 8. Tf: 945217508

amaiur@aeknet.net

Arana. Arana 30. Tf: 945252400

arana@aeknet.net



Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

LA RIOJANA
jatetxea

on egin! bokatak,
pintxoak,
kazulatzak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



e
g
m
u
n
e
k
a
o

F1Z

Munduko txapeldun Goteborg-en (1995)

Seulgo maratonia irabazi (1996)

Otsukoa (Japonia) 1997an,

bere marka onenarekin (2h 08' 05")

Nazioareko Maratoia. New York'99; 7.a

Sidney 2000. Olinpiadak; 6.a

Nazioareko Maratoia.

Milennium Madril' 01: 11.a

MILA ESKER!



2002. urtea

adaka 
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

• **ALDE ZAHARREKO
IV. EUSKAL JAIA.**

Ekainak 1. HIRI BIHOTZAZ HARAINDI!

• **PARRAL TABERNA. EKAINEKO
AGENDA**

- 4AN. MAGIA IKUSKIZUNA: "JESÚS EL MAGO"
 - 11N. MAJARA'S QUARTET
 - 18AN. ANTZERKIA: FINISTERRE & TERRANOVA: "CLOWNTACUENTOS"
 - 25EAN. KULTUR ERROTA-02 (GEU ELKARTEAREN ESKUTIK): AMARAUN JAZZ TALDEA
- ORDUA: 20.30ETAN

• **ADI HIKAAATENEOKO EKAI-
NEKO AGENDARI!!!**

(GUNE SOZIOPOLITIKOKULTURALA)
PINTO KALEA, 13 (LEHENGO ZULOA
LIBURUDENDA)

EKITALDIAK HILERO: ERREZITAL-
DIAK, HITZALDIAK, BIDEO EMANAL-
DIAK, MINTEGIAK, MAHAINGURUAK,
JOKOAK, ERAKUSKETAK, INTERNET,
ALDIZKARIAK, CAFÉ, LIBURUAK...
ASTELEHENETIK OSTIRALERA,
18.00ETATIK 22.00ETARA

**Juan San Martín
beka 2002**



• **IGARTZA SARIA.**

V. LITERATUR SORKUNTZAKO BEKA

IDAZLE BERRIENTZAT

EPEA: UZTAILAREN 1ERA ARTE

INFORMAZIOA: BEASAINGO UDALA. EUSKARA
ZERBITZUA

• **PEDRO DE ATARRABIA XIV.
LITERATUR SARIKETA**

KONTAKIZUN LABURRAK

EPEA: IRAILAREN 27A

ANTOLATZAILEA: ATARRABIAKO UDALEKO

KULTURA ZERBITZUA

TEL.: 948332659

CCVILLAVA@CIN.ES

• **JUAN SAN MARTIN BEKA 2002**

ANTOLATZAILEA: EIBARKO UDALA, UDAKO

EUSKAL UNIBERTSITATEAREN LAGUNTZAZ

IKERKETA ESPARRUAK: 2002AN ARTEAREN

HISTORIA ETA HISTORIA

EPEA: IRAILAREN 9TIK URRIAREN 10ERA

INFORMAZIOA: EIBARKO UDALA

• **SAN PRUDENTZIO XXXIII.
ARGAZKI LEHIAKETA**

EKAINAREN 23RA ARTE

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN

AGIRITEGIA



axular  Liburudenda
Arka. 11
01005 Vitoria-Gasteiz



LIBURU ETXEA
Alameda de Urquijo, 9
48008 Bilbao
Colón de Larreategui, 41
48009 Bilbao

LIBURU ETXEA
CASA DEL LIBRO
axular  Liburudenda

IRUSTA

**poteo eta
pintxoak**

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak



**25 URTE ELKARREKIN
ERAIKITZEN**

Diktadura osteko Lehen

Batzarraren 25garren urteurrena



• **II. UMORE GRAFIKOKO NAZIOARTEKO**

LEHIAKETA: "TEKNOLOGIA BERRIAK"

PARTEHARTZAILEEK TEKNOLOGIA BERRIEN GAINEN (INTERNET, BIOLOGIA, ESPAZIOA, TELEKOMUNIKAZIOAK, MEDIZINA, ETAB.) UMORE GRAFIKOZKO MARRAZKIAK AURKEZTU BEHARKO DITUZTE.

EPEA: AZAROAREN 4A BAINO LEHEN

INFORMAZIOA: BARAKALDOKO UDALA

• **ARABAKO ESKOLARTEKO BERTSO TXAPELKETA. 2002**

FINALA: EKAINAREN 8AN, ARMENTIA IKASTOLAN

• **JOSE ANTONIO LOIDI IKERKETA BEKA**
IKERKETA ESPARRUAK: ANTROPOLOGIA, FILOLOGIA, TOPONIMIA, LITERATURA, OSASUN PUBLIKOA, HIDROLOGIA ETA BOTANIKAK.

PROIEKTUA, AZTERLANA ETA MEMORIA EUSKARAZ BURUTUKO DIRA.

EPEA: IRAILAREN 10ETIK 27RA

INFORMAZIOA: IRUNGO UDALA-EUSKARA ZERBITZUA. 943649250

EUSKARA@IRUN.ORG


WWW.IRUN.ORG

• **MOARÉ DANTZA TALDEA**

MONTEHERMOSO KULTURUNEAN, EKAINAREN 6AN

• **GASTEIZKO IKUS-ENTZUNEZKOEN XVII. JAIALDIA**

EKAINAREN 24TIK 28RA LEHIAKETAN PARTE HARTURIKO LANAK IKUSGAI MONTEHERMOSO KULTURUNEKO BETOLATZA ARETOA, 19.00ETAN



**ikastaro
trinkoak**

bai & by
land

Florida kalea, 8 • 945 150 155



Multi Credit

Coche



ZURE KOTXEAREN EROSKETARAKO



* % 6,50a nomina helbideratua ez badaukazu
U.T.B.: % 7,192a 7 urterako mailegu batentzat
eta komisio irekitzea barne sarturik, % 1,5 (30,00
euro gutxienez)

Martxoaren 15etik uztailaren 31 arte

Finantziaketa abantailosoena

Caja Vital  Vital Kutxa

www.cajavital.es



***Ekainean
kalean!***